La especie no tiene predadores naturales que le acosen habitualmente, siendo la presión humana el principal factor que puede limitar sus poblaciones. Esto hace que, en un contexto como el actual, en el que la especie está atravesando un incremento poblacional en muchas de las zonas del mundo en las que habita, el reto prioritario sea realizar una adecuada gestión. Ésta debe buscar el mantenimiento de poblaciones lobunas saludables y la mínima repercusión del lobo sobre los intereses sociales y económicos ligados al medio rural en general y a la ganadería en particular.

Habitando el territorio vasco desde muy antiguo, el lobo experimentó, especialmente a partir del siglo XIX, una lenta pero inexorable rarefacción, situación de declive poblacional que desembocó, en la década final del siglo XIX, en su desaparición como población estable. En cualquier caso, desde las últimas décadas del siglo XIX y hasta mediados del siglo XX la presencia del lobo en Álava es permanente. Este escenario fue muy similar a nivel ibérico, alcanzándose el mínimo poblacional de la especie en la década de los años sesenta del siglo XX.

Desde entonces, cambios en los factores socioeconómicos, el incremento de las poblaciones de ungulados silvestres (principalmente jabalíes y corzos) y una afortunada prohibición del veneno facilitaron su progresiva recuperación. La expansión del lobo ocurre desde el noroeste peninsular hacia el este y sur. Los lobos procedentes de los territorios norteños de Burgos (Castilla y León) y Cantabria, protagonizan, desde la década de los 80, el principal intento de recolonización en Álava, proceso que continúa en la actualidad. Así, desde los últimos años del siglo XX, se constata la presencia del cánido en las sierras más occidentales de la CAPV (Ordunte, Sálvada, Gibijo, Arcena...), siendo más aislada en áreas más orientales de la provincia (macizo del Gorbea y Sierra de Badaya, fundamentalmente).

En el occidente alavés los lobos suponen la distribución más nororiental de la población del norte ibérico.

1.2.- Distribución Ibérica

En la Península Ibérica hay dos poblaciones y un tercer núcleo de reciente aparición:

- Una población en el cuadrante noroccidental, integrada por más de 240 manadas o grupos reproductores, que suponen una estima de 2.000 a 2.400 lobos con presencia en las comunidades autónomas de Galicia, Asturias, Cantabria, Castilla y León y la Rioja. También se han detectado ejemplares en el norte de la Comunidad de Madrid y de Castilla La Mancha, así como en el norte y este de Portugal y en el occidente de Alava. La tendencia general de esta población en las últimas tres décadas es expansiva, especialmente en sus límites meridional y oriental.

- Al sur, en Sierra Morena, hay una reducida población (estimada en 6-10 parejas) que se encuentra en peligro crítico de extinción.

- En el Pirineo Catalán, a partir del año 2003 se ha detectado la presencia de algunos ejemplares de genealogía franco-italiana. Hasta el momento no se ha confirmado la existencia de reproducción.

1.3.- Requerimientos de hábitat.

Se trata de un generalista adaptable a condiciones de hábitat muy dispares, pudiendo ocupar casi cualquier tipo de medio que le brinde dos aspectos fundamentales: la posibilidad de obtener alimento y la de tener cobijo frente al ser humano.

1.4.- Organización social.

El lobo es un animal marcadamente social, fundamentado en manadas territoriales donde existe una fuerte jerarquía intra e intersexos.

Kontuan hartu beharreko otso motak:

- Taldearen barruan daudenak. Bikote ugaltzaileak eta hainbat alek osatzen duten taldea da eta ehizatzen eta kumeak hazten laguntzen dute.

- Kanpokoak. Helduak edo mendeko azpi helduak dira eta taldetik kanpo bota dituzte. Kalitate ertain edo baxuko eremu periferikoak okupatzen dituzte.

- Mugikorrak. Ale hauek sakabanatuta daude eta zein talde edo lekutan ezarriko diren bilatzen dute. Populazio handietan egon ohi dira eta habitat txarrenak okupatzen dituzte.

Populazioen kalkuluak neguan antzemandako aleetan (gutxieneko populazioa) eta udako talde ugaltzaileen kopuruan oinarritzen dira. Aleak otso kopuruaren arabera biderkatzen dira. Hori horrela, eremu iberiarreko talde bakoitzean batz bestea 8-10 ale biderkatu behar direla kalkulatu da. Zifra horietan jasotzen dira taldeetan dauden otsoez gain, beste ale mugikor eta sakabanatzaileak, hau da, berez talde ugaltzaileetakoak ez direnak, zenbatzeko zailak diren animaliak eta populazioaren zati garrantzitsua osa dezaketenak (populazio batzuetan ehuneko 10, eta beste batzuetan gehiago: Estatu Batuetan ehuneko 29 eta Gaztela eta Leongo zereal lautadan ehuneko 40 inguru).

1.5.- Jardueraren patroia.

Iberiar Penintsulan gaez jardun ohi du espezie honek. Goizeko ordu batzuk eta laurak bitartean aritzen da, eguzkia sartu ondoren. Goizaldeko lehenengo orduetan aritzen da gehien, 2-4 orduko atseden laburra hartzen du, eta, gero, bere jarduerari ekiten dio berriz, fase labor batez. Eguneko orduak lurrean etzanda pasa ohi ditu, baina egunez mugitzea ere ez da arraroa. Sakabanatutako ale gazteek, heldu erratikoek eta kumeak hazten ari diren emeek izaten dute jarduera gehien egunez. Udan, denbora gehiago egoten dira egunez.

1.6.- Mugimenduak eta ibilera eremuak.

Otsoa lekualdaketa handiak egiteko gai da. Iberiar eremuan, azterketa erradiotelemetrikoren bidez, Gaztela eta Leon Autonomia Erkidegoko bi girotan eguneko batz besteko mugimenduak ikertu dira:

- Mendi ingurua. Batez besteko ibilera eremua 349 km²-koa zen (100-892 km²-ko tartea). Eguneko batz besteko lekualdaketak 10-12 km-koak izan ziren (0-60 km-ko tartea). Ohiko ustiapen eremua 200 km²-koa zen.

- Nekazaritza sistemak. Batez besteko ibilera eremua 262 km²-koa zen (106-532 km²-ko tartea). Eguneko batz besteko lekualdaketak 19,5 km-koak izan ziren (1-48 km-ko tartea).

Taldeetan sartzen ez diren aleen kasuan (otso mugikorrek eta kanpokoak), ibilera eremuak 1.500 km²-tik gorakoak izan daitezke.

1.7.- Elikadura.

Animalia hau nagusiki haragijalea bada ere, malgutasun trofiko handia du eta une eta leku bakoitzean eskuragarriena den elikadura iturria aprobetxatzeko gai da: unglatu ertain eta handiak, mikrougatzunak, etxe abereak, sarraskiak, zaborra, bai eta fruitu haragitsuak edo ezkurak bezalako landare elementuak ere.

1.8.- Ugalketa.

Espezie hau monogamoia izan ohi da eta urtean araldi bakarra du. Eremu iberiarrean, urtarilaren amaieraren eta apirilaren hasieraren bitartean izan ohi da aldi hori. Errealia 63 egunez luzatzen da. Beraz, erditzeak apirilaren eta ekainaren hasieraren bitartean izan ohi dira. Umealdiaren batez besteko tamaina 4-6 kumekoa da. Otsoak kume 1etik 11ra izan ditzake. Oro har, talde egonkor bakoitzeko umealdi bat egoten da. Otsokumeakitsuak izaten dira lehenengo 15 egunetan eta lehenengo hilabetearen ondoren hasten dira gordelektutik irteten, helduek berrahoratutako haragia jaten hasten direnean (ordura arte beren elikadura esnea izaten da, batez ere). Hiru hilabete igaro arte, babeslektutik hurbil egoten dira eta taldeko gainerako otsoek babesten dituzte. Adin horretatik aurrera, ehiza teknikak praktikatzen hasten

Tipos de lobos a considerar:

- Integrados en el núcleo de la manada. Se trata de la pareja reproductora y un número variable de ejemplares que colaboran en la caza y crianza de los cachorros.

- Periféricos. Son adultos o subadultos subordinados que han sido expulsados del seno de la manada. Ocupan áreas periféricas de mediana o baja calidad.

- Flotantes. Ejemplares en dispersión que buscan una manada o espacio en el que establecerse. Son típicos de poblaciones saturadas y ocupan los peores hábitats.

Las estimas poblacionales se fundamentan en la detección de ejemplares en invierno (mínimo poblacional) y el número de manadas reproductoras en verano, las cuales son multiplicadas por un número determinado de lobos. Así, en el ámbito ibérico se estima que, por término medio, cada manada debe multiplicarse por 8-10 ejemplares. En estas cifras se encontrarían recogidos, además de los lobos integrados en las manadas, aquellos otros ejemplares flotantes o dispersantes, es decir, no pertenecientes propiamente a los grupos reproductores, animales difíciles de contabilizar y que pueden llegar a representar una fracción significativa de la población, desde un 10 por ciento en ciertas poblaciones, hasta el 29 por ciento en Estados Unidos y en torno al 40 por ciento en la meseta cerealista de Castilla y León.

1.5.- Patrón de actividad.

En la Península Ibérica manifiesta un comportamiento eminentemente nocturno, comenzando su actividad entre 1 y 4 horas después de la puesta de sol, con máximos de actividad a primeras horas de la madrugada y un corto período de reposo nocturno de 2 a 4 horas seguido de otra corta fase de actividad. Las horas diurnas suelen pasarlas encamados, aunque tampoco deben considerarse raros los movimientos a plena luz. Los ejemplares jóvenes en dispersión, adultos divagantes y las hembras durante la crianza de los cachorros, presentan mayores niveles de actividad diurna. Durante el verano prolongan más la actividad en las horas de luz.

1.6.- Movimientos y áreas de campeo.

El lobo es un animal capaz de realizar grandes desplazamientos. En el ámbito ibérico, mediante estudios radiotelemétricos se ha estimado la entidad de los movimientos medios diarios en dos ambientes de la Comunidad Autónoma de Castilla y León:

- Área de montaña. El área de campeo media fue de 349 km² (rango 100-892 km²). Los desplazamientos medios diarios fueron de 10-12 km (rango de 0 a 60 km). El área de explotación regular fue de unos 200 km².

- Agrosistemas. El área de campeo media fue de 262 km² (rango 106-532 km²). Los desplazamientos medios diarios fueron de 19,5 km (rango 1-48 km).

En el caso de ejemplares no adscritos a manadas (lobos flotantes y periféricos), las áreas de campeo pueden ser superiores a los 1.500 km².

1.7.- Alimentación.

Si bien es un animal eminentemente carnívoro, presenta una alta plasticidad trófica, siendo capaz de aprovechar aquella fuente de alimento más disponible en cada momento y lugar determinados: unglados de mediano y gran tamaño, micromamíferos, ganado doméstico, carroñas, basuras, incluso elementos vegetales tales como frutos carnosos o bellotas.

1.8.- Reproducción.

Es una especie generalmente monógama que tiene un sólo celo al año. En el ámbito ibérico, éste se produce entre finales de enero y principios de abril. La gestación se prolonga por espacio de 63 días. Los partos se registran, por tanto, entre abril y principios de junio. El tamaño medio de camada es de 4 a 6 cachorros, pudiendo oscilar éste entre 1 y 11 crías. Por regla general, sólo se produce una camada por manada estable. Los lobeznos son ciegos durante los primeros 15 días de edad, iniciando las salidas de la madriguera hacia el primer mes de vida, justo cuando comienzan a alimentarse de carne regurgitada por los adultos (hasta entonces su alimentación se ha basado exclusivamente en leche). Hasta los tres meses permanecen en un entorno cercano al cubil estrechamente atendidos por el resto de ejemplares

dira eta geroz eta maizago laguntzen diete helduei. Sexu heldutasunera iristen diren kumeak (bi urte inguru) ez badira taldean sartzen, sakabanatu egiten dira beste talde batzuk osatzeko edo beste talde batzuetan sartzeko.

1.9.- Demografia.

Ugalketaren estrategia da, hau da, bere populazioak jaiotza eta heriotza naturaleko tasa altuak dituzte ala ez (ehuneko 15 eta 68 bitartean), eta, beraz, gorabehera handiak dituzte, modu naturalean. Ugalketarako estrategia honek egoera demografiko estuetatik azkar berreskuratzea ahalbidetzen du. Hori horrela, ezin da otsoaren populazioa murriztu, sei hilabetetik gorako aleen heriotza tasa urtean ehuneko 35 baino altuagoa izan arte. Gertakari hau gorabehera, kontuan hartu behar da jatorri ez naturala edo gizakiaren ondoriozko jatorria duten heriotzek kopuru osoaren ehuneko 50 osa dezaketela.

Otsoak 14-16 urtera arte bizi daitezkeen arren, ehuneko 80-85 ez da 5 urte izatera iristen. Parametro hori, neurri handi batean, espezieak zenbait eremutan duen giza jazarpenaren arabera da. Otsoen biziraupenerako unerik kritikoenak gaztaroa (lehenengo urtea baino lehen), kumeen gune berrietara joateko unea eta sexu heldutasuna dira.

1.10.- Sakabanatzea.

Prozesu honetan, otso gazteek eta azpi helduek lursail berriak okupatzen dituzte, espeziearen banaketa eremua handitzen dute, heriotza tasak jaiotza tasak baino altuagoak diren tokietan galerak konpentsatzen dituzte, aldakortasun genetikoa eustea ahalbidetzen dute, talde berriak sortzen dira edo beste talde batzuetako otso zaharrak ordezkatzeko dira, ugaltzeko zereginetan.

Otso gazteak urte bete eta hiru bitartean dituztenean sakabanatzen dira. Orokorrean, neguan hasten da prozesua, araldiaren ondorioz talde barruko tentsioak areagotzen direnean. Batzuk udan ere sakabanatzen dira. Gaztela eta Leonen, azterketa erradiotelemetrikoen bidez sakabanatzeko batez besteko distantzia 32 eta 34,4 km ingurukoa (13-50 km-ko tartea) dela zehaztu ahal izan da. Jakin da, gainera, ale horien ehuneko 55 baino gehiagok zona berri batean finkatu eta haztea lortu zuela, herena (gutxi gorabehera) hil egin zela eta ehuneko 11 inguru leku ezezagunen baten egon zela (seguru asko beren jatorrizko lekua baino 50 km haratago joan ziren).

1.11.- Mehatxuak eta atzerakada eragiten duten faktoreak.

Oro har, otsoak egun ez duela iparralde iberiarreko bere populazioa arriskuan jartzen duen mehatxu handirik uste da. Aurkako faktoreen artean, honakoak aipa ditzakegu: pozoia eta isileko ehiza, abeltzaintzarekiko gatazka handia duten lekuetako presioa, populazioak zatitzea eragiten duten azpiegitura handien hesi efektua eta txakurrekiko hibridazioa populazio birkolonizatzaile txikietan (ondorengo emankorrak sortzen ditu).

2. artikulua.- Otsoa Araban.

Otsoa Arabako Lurralde Historikoko sektorerik mendebaldekoenean agertzen da eta probintziako hedaduraren herena (gutxi gorabehera) osatzen du.

1997. urtean, ugalketaren lehenengo ebidentzia egiaztatu zen. Lurralde artean muga egiten duen leku honetan, talde ugaltzaile berriak finkatu ziren. Hala ere, ordutik egoera aldatu egin da, ingurumen inguruabarren eta giza presioaren ondorioz.

Egun, espeziei buruz egindako azterketa desberdinetan oinarrituz, Arabako mugetan hiru talde ugaltzaile daudela jakin da. Urteen arabera arrakasta ugaltzaile desberdina dute eta udako gutxieneko populazioa hamabost alelik gorakoa da.

Otso hauek Iberiar Penintsulako ipar mendebaldeko populazio jarraituaren barruan sartzen dira. Populazio hori, kalkulurik berrienaren arabera, 240 talde ugaltzaile baino gehiagok osatzen dute, nahiko modu jarraituan banatuta. Hori horrela, populazioa osatzen duten otsoek unitate geografiko bat eratzeke beste eragin dezakete euren artean.

de la manada. A partir de esa edad comienzan a practicar las técnicas de caza acompañando a los adultos cada vez con más frecuencia. Las crías que llegan a alcanzar la madurez sexual (en torno a los dos años de edad) y no se incorporan a la manada, suelen dispersarse para intentar formar o integrarse en otras manadas.

1.9.- Demografía.

Es un estrategia de la "r", es decir, sus poblaciones tienen unas elevadas tasas de natalidad y mortalidad naturales o no (entre 15 por ciento a 68 por ciento), lo que supone que registran grandes fluctuaciones de manera natural. Esta estrategia reproductiva le permite una rápida recuperación de situaciones demográficas comprometidas, considerándose que el declive de las poblaciones de lobo no se consigue hasta que la mortalidad de los ejemplares mayores de seis meses supera el 35 por ciento anual. Aparte de este hecho, hay que considerar las causas de mortalidad de origen no natural o antrópicas que pueden suponer el 50 por ciento de la mortalidad total.

Aunque los lobos pueden vivir hasta los 14-16 años, el 80-85 por ciento no alcanzan los 5 años de edad. Este parámetro depende en gran medida de la persecución humana a la que se ve sometida la especie en ciertas áreas. Los momentos más críticos para la supervivencia del lobo son la juventud (antes del primer año de vida) y el momento de la dispersión a nuevas zonas de cría y la madurez sexual.

1.10.- Dispersión.

Es el proceso mediante el cual los lobos jóvenes y subadultos van ocupando nuevos terrenos, amplían el área de distribución de la especie, compensan las pérdidas de efectivos en áreas con tasas de mortalidad superiores a las de natalidad, hacen posible el mantenimiento de la variabilidad genética, se forman nuevos grupos o se reemplaza a individuos viejos de otras manadas en sus tareas reproductoras.

Los lobos jóvenes suelen dispersarse entre los 1 y 3 años de edad. Generalmente se inicia el proceso durante el invierno, cuando las tensiones dentro del grupo aumentan como consecuencia del celo. También una parte se dispersa en verano. En Castilla y León estudios radiotelemétricos han permitido determinar una distancia media de dispersión, entre los 32 y 34,4 km. (rango 13-50 km) y que, más del 55 por ciento de estos ejemplares consiguieron establecerse y criar en una nueva zona, alrededor de un tercio murió y un 11 por ciento tuvo un paradero desconocido (posiblemente se dispersaron a más de 50 km. de su área de origen).

1.11.- Amenazas y factores de regresión.

Con carácter general se considera que, actualmente, el lobo no tiene graves amenazas que pongan en peligro su población del norte ibérico. Entre los factores adversos se encuentran el veneno y la caza furtiva, la presión en áreas donde la conflictividad con la ganadería es importante, el efecto barrera de las grandes infraestructuras que originan la fragmentación de poblaciones y la hibridación con perros en pequeñas poblaciones recolonizadoras que genera descendencia fértil.

Artículo 2.- El lobo en Álava.

El lobo aparece en el sector más occidental del Territorio Histórico de Álava, que representa aproximadamente un tercio de la extensión provincial.

En el año 1997 se constató la primera evidencia de reproducción. El asentamiento de nuevos grupos reproductores en esta zona frontera entre territorios ha variado desde entonces en función de las circunstancias ambientales y de la presión humana.

Actualmente se estima sobre la base de los diferentes estudios efectuados sobre la especie que existen tres grupos reproductores en los límites con Álava, con distinto éxito reproductivo según los años y con una población mínima estival mayor a quince ejemplares.

Estos lobos forman parte de la población continua noroccidental de la Península Ibérica, la cual, en la estima más reciente, se cifra en un censo superior a los 240 grupos reproductores distribuidos de forma más o menos continua de tal manera que los individuos que la integran, pueden interactuar lo suficientemente entre sí como para conformar una unidad demográfica.

Ziklo biologikoan Arabako lurraldea erabil dezakeen populazioak populazio iberiar biologiko jarraituaren ehuneko 1 inguru osatzen du eta bere dinamika populazio iberiarraren dinamikaren arabera izango da, funtsean. Populazioak, egun, ez dauka arrisku handirik.

3. artikulua.- Batasunaren intereseko larretarako habitatak. Estatus eta mehatxuak.

Nabarmentzekoak dira Europa mailan otsoa babesteko dauden konpromisoak, habitat naturalak eta espezieen habitatak kontserbatzeko orduan. Kontserbazioa 92/43/CEE Zuzentarauan arautzen da, 3. artikulua bidez. Izan ere, Zuzentaru horrek kontserbazio zona berezien Europako sare koherentea sortzen du: Natura 2000. Sare hori I. eranskinen azaltzen diren habitat natural motak eta II. eranskinen azaltzen diren espezieen habitat motak jasotzen dituzten lekuek osatzen dute. Sarearen helburua habitatak kontserbazio egoera onean mantentzea, edo, hala badagokio, berrezartzea da.

Batasunaren Intereseko Arabako Lekueta, hau da, Arkamo-Gibijo-Arrastaria, Gorbeia, Entzia, Izki, Valderejo, Kantabriako mendilerroa, Aldaiako mendiak, Aizkorri-Aratz, Sobron eta Vitoria-Gasteizko mendietan, intereseko larretarako habitaten azalera 11.227 hektareakoa da, guztira. Hegaztien Babes Bereziko Zonen kasuan (Gorobel mendilerroa, Valderejo-Arcena mendilerroa, Arabako hegoaldeko mendilerroak eta Izki) 6.430 hektarea dira Batasunaren intereseko larretakoak.

Une honetan, BILen kudeaketa planak idazten ari dira, Kontserbazio Bereziko Zonak (KBZ) aitortu ahal izateko. Bitartean, kontserbazio hori bermatzeko beharrezko neurriak hartu behar dira, besteak beste, abeltzaintza estentsiboaren erabilera eta horren gainean eragina duten mehatxuen murrizketa.

Europako larreak garrantzitsuenetakoak dira biodibertsitatea mantentzeko dagokionez. Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen (FAO) arabera, larreak, zentzu hertsian, munduko habitat mota hedatuaren artean sartzen dira eta beren eremua 52,5 milioi km²-koa da. Lurreko biomasari dagokionez, ehuneko 40,5 osatzen dute.

Europako larre gehienak giza jardueren eraginaren ondorioz aldatu dira (batzuk gehiago eta beste batzuk gutxiago) eta beren hedadura handiena nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren bidez sortu eta mantendu da. Hori dela medio, "larre erdi natural" gisa defini daitezke, beren landare erkidegoak naturalak diren arren. Larre hauek nekazari eta abeltzainen artzaintza edo belar mozketaren arau-bidearen bidez mantentzen dira, baina naturalagoak ere badaude: "larre iraunkorrak". Horien banaketa baldintza naturalek zehazten dute, besteak beste, klimak, topografiak eta lurzoruen egiturak. Kokaleku oso zehatz eta txiki batzuk salbu, Arabako habitatak "larre erdi naturalen" taldean sartzen dira, gehienbat.

Larreak espezie aberastasun handiena duten Europako habitaten artean sartzen dira. Karedun larreak landare aberastasun handiena duten landaretza erkidegoak dira (m² bakoitzeko 80 espezie baino gehiago). Espezieen dibertsitate izugarri honek are garrantzia handiagoa du artropodoen (adibidez: tximeletak) dibertsitatean eta larre inguruetara egokitutako zenbait hegazti (basoiloak, belatzak, etab.) eta karraskariak bezalako beste espezie batzuk (souslik, lursaguak, basa arratoiak, etab.) mantentzen dituzke.

FAOren (2006) arabera, EBko larreen azalera ehuneko 12,8 jaitsi da 1990etik 2003ra eta estatu kide gutxi batzuk soilik lortu dute joera hori saihestea.

Ingurumeneko Europako Agentziak ezarri zuenez, larre naturalen mota bereziko zona gutxi batzuk salbu, Europako larre guztiak artzaintzak eta belar mozketak mantentzen ditu. Horien intentsitatea eta mantentzea ezinbestekoak dira bertako larreak eta espezieak babesteko.

Larretarako habitaten ehuneko 75 baino gehiago kontserbazio egoera okerretan daude, estatu kideek Habitaten Zuzentaruak 17. artikulua aplikatuz aurkeztutako datuen arabera.

La fracción poblacional susceptible de utilizar territorio alavés en su ciclo biológico, representaría aproximadamente el 1 por ciento del conjunto de esa población biológica continua ibérica y su dinámica dependerá fundamentalmente de la dinámica de la población ibérica que carece de grandes riesgos en la actualidad.

Artículo 3.- Hábitats pascícolas de interés comunitario. Estatus y amenazas.

Es importante recalcar los compromisos de protección a nivel europeo, para la conservación de los hábitats naturales y de los hábitats de las especies. Esta se articula en la Directiva 92/43/CEE a través del artículo 3 que establece la creación de una red europea coherente de zonas especiales de conservación, denominada "Natura 2000". Dicha red, compuesta por los lugares que albergan tipos de hábitats naturales que figuran en el anexo I y de hábitats de especies que figuran en el anexo II, deberá garantizar el mantenimiento, o en su caso, el restablecimiento, en un estado de conservación favorable de los mismos.

En los Lugares de Importancia Comunitaria de Álava, es decir, Arkamo-Gibijo-Arrastaria, Gorbeia, Entzia, Izki, Valderejo, Sierra de Cantabria, Montes de Aldaia, Aizkorri-Aratz, Sobrón y Montes de Vitoria, la superficie total de hábitats pascícolas de interés es de 11.227 ha. En los casos de las Zonas de Especial Protección para las Aves, Sierra Salvada, Valderejo-Sierra de Arcena, Sierras Meridionales de Álava e Izki, son 6.430 ha de pastos de interés comunitario.

En estos momentos se está llevando a cabo la redacción de planes de gestión de los LIC, que permitirán la declaración de dichos espacios Zonas de Especial Conservación (ZEC). Mientras tanto, se deben tomar las medidas necesarias para garantizar dicha conservación, entre ellas, el manejo de la ganadería extensiva y la reducción de las amenazas que inciden sobre la misma.

Los pastos en Europa son uno de los más importantes desde el punto de vista del mantenimiento de la Biodiversidad. Según la FAO, los pastos en sentido estricto se encuentran entre los tipos de hábitats más extensos del mundo, siendo su área estimada en 52,5 millones de km², mientras que en términos de biomasa terrestre, representan el 40,5 por ciento de ella.

La mayoría de los pastos europeos están más o menos modificados por las actividades humanas y su mayor extensión ha sido creada y mantenida por las actividades agrícolas y ganaderas. Por ello pueden ser definidos como "pastos semi-naturales" aunque las comunidades de plantas que soportan son naturales. Estos pastos son mantenidos por el régimen de pastoreo o de siega de los agricultores y ganaderos aunque también hay algunos más naturales: "pastos permanentes", cuya distribución es determinada por condiciones naturales incluyendo el clima, la topografía y la estructura del suelo. Salvo enclaves muy concretos, y de reducida extensión superficial, los hábitats alaveses se encuadran mayoritariamente en el grupo de los "pastos semi-naturales".

Los pastos se encuentran entre los hábitats de Europa con mayor riqueza de especies. De hecho, los pastos calcáreos son las comunidades vegetales con mayor riqueza de plantas (superior a 80 especies/m²). Esta extrema diversidad de especies, alcanza todavía mayor significación en diversidad de artrópodos (por ejemplo: mariposas) y puede mantener un elenco de aves adaptadas a zonas de pastos -avutardas, halcones, etc.- y otras especies, como roedores (souslik, topillos, rata de campo, etc.).

De acuerdo con la FAO (2006) la superficie de pastos en la UE ha disminuido un 12,8 por ciento desde 1990 a 2003 y solamente unos pocos estados miembros han conseguido evitar esta tendencia.

La Agencia Europea de Medio Ambiente estableció que excepto unas pocas zonas de tipos especiales de pastos naturales, todos los pastos europeos son mantenidos por el pastoreo y la siega, cuyo mantenimiento e intensidad es crucial para la protección de los pastos y especies que mantiene.

Más del 75 por ciento de los hábitats pascícolas se encuentran en un estado de conservación desfavorable, de acuerdo a los datos presentados por los Estados Miembros en aplicación del Artículo 17 de la Directiva Hábitats.

Larretarako habitaten mehatxu ezberdinei dagokienez, honela azal daitezke: lurzoruaren erabilerak aldatzea, jarduera tradizionalak bertan behera uztea, basoberritzea, artzaintzako dentsitatea aldatzea, larreen erabilera areagotzea, drainatzea, uholdeak kontrolatzea, nitrogenoa kentzea esekiduran, etab.

Mendi inguruetako larreek biodibersitatea kontserbatzeko ematen duten laguntza nabaria da, eta, beraz, leku horietan kontserbazio neurri egokiak hartu behar dira. Natura 2000 sareko espazioak kudeatzea funtsezkoa da intereseko habitatak kontserbazio egoera onean mantentzeko, eta, horretarako, ezinbestekoa da espazio horietan bizi direnek eta horien erabileraren mende daudenek modu aktiboan parte hartzea.

92/43/CEE Zuzentarauko larretarako habitatak, Arabako mendiko larre pasaietan daudenak eta abeltzaintza aprobetxamenduen menpeko mantenamendua dutenak, honakoak dira: txilardi hezeak (4020 kodea), txilardi siku azidofiloak (4030), ipurudi herrestariak (4060), ipurudi kaltzikolak isatsekin (4090), paramo larreak eta larre kaltzikola harrirarrak (6170), *Brachypodium pinnatum*aren albiz belardiak eta beste larre mesofilo batzuk (orkidea nabaridun lekuak, 6210*, lehentasunezko habitata) eta belardi menditarrak (6230*, lehentasunezko habitata).

Guztiok ezagutzen dugu landare erkidegoen eta belarjale erkidegoen egituraren arteko harreman interaktibo estua. Interakzio horren garrantzia bistartzeko, mendiko larreen dibersitatearen zati handi bat seguru asko antzinako pastoralismoaren ondorio izan dela aipatu beharra dago. Larretarako habitatak, ekoizpen baliabidea osatzeaz gain, aberastasun ekologiko eta biologiko garrantzitsua osatzen dute Arabako testuinguruan, flora eta faunako zerrenda luzea baitago larrerako ekosistema hauei lotuta. Esan bezala, habitat hauen kontserbazio egoera ona mantentzeko, larreak erabiltzen dituen abeltzaintza jarduera ondo kudeatu behar da.

4. artikulua.- Abeltzaintza estentsiboa.

Arabako abeltzaintza estentsiboa honakoa da:

- Ardiak ustiapenen ehuneko 42 eta animalien ehuneko 72 osatzen du.

- Haragitarako behiak ustiapenen ehuneko 42 eta animalien ehuneko 24 osatzen du.

- Ahuntzak ustiapenen ehuneko 16 eta animalien ehuneko 4 osatzen du.

Abeltzaintza estentsiboak ibilera eremuetan duen indarra oso garrantzitsua da, abeltzaintza estentsiboko ustiapen guztien ehuneko 74 eta animalien ehuneko 63 osatzen baitu.

Otsoak daudenez, abeltzainek beren abereen gainean estrategia ezberdinak hartu behar dituzte kalteak murrizteko, harrapakaritzak ardiari eragiten baitio batez ere; espezie honen maneia da aldaketa gehien jasan duena. Erasoen arriskua murrizte aldera, artaldeek denbora gutxiago igarotzen duten larre altuetan. Denboraren batz besteko murrizketa ehuneko 33koa dela kalkulatu da. Gauero artaldea ixtea da erabili ohi den beste estrategietako bat, eta, ondorioz, larreak gutxiago erabiltzen dira, abereak ezin baitira asko urrundu gaua igarotzeko lekutik. Babesteko beharra dela eta, artzukurak sartu behar izan dira artaldeetan eta artzaina denbora gehiago egon behar izan da abereak zaintzen. Datuen arabera, abereak zaintzeko denbora 2,5 eta 3 artean biderkatzen da, otsoen erasoak jasotzeko arriskurik gabeko uneekin alderatuta. Gainera, lan orduak asko igotzen dira eta lan baldintzak gogortu egiten dira. Ondorioz, abeltzainaren bizi kalitatea jaitsi egiten da. Abereekin hainbeste denbora eman behar izatea pertsona gazteen bizi itxaropenen aurka doa, eta, ondorioz, zaila da belaunaldiz belaunaldiko txandakatzea lortzea.

Eragin ekonomikoa aztertuz gero, elikadura kostuen igoera ehuneko 17 eta 19 artekoa izan daiteke, abereek mendilerroan igarotzen duten denboraren arabera. Denbora hori murrizteak errentaren galera ehuneko 43rainokoa izatea eragin dezake.

Respecto de las amenazas de diferente índole de estos hábitats pascícolas, se pueden enunciar como: cambios en los usos del suelo y abandono de las actividades tradicionales, reforestación, cambios en la densidad del pastoreo, intensificación del manejo de los pastos, drenaje y control de inundaciones, deposición de nitrógeno en suspensión, etc.

La contribución de los pastos de zonas montañosas de cara a la conservación de la biodiversidad es indudable, por lo que deben adoptarse las correspondientes medidas de conservación en dichos lugares. La gestión de estos espacios Natura 2000 es fundamental para el mantenimiento del buen estado de conservación de los hábitats de interés en ellos presentes y aquella es impensable sin la participación activa de las personas que viven y dependen del uso de dichos espacios.

Los hábitats pascícolas de la Directiva 92/43/CEE, inmersos en paisajes pastoriles de la montaña alavesa y cuyo mantenimiento depende del aprovechamiento ganadero son: brezales húmedos (código 4020), brezales secos acidófilos (4030), enebrales rastroeros (4060), brezales calcícolas con genistas (4090), pastos parameros y petranos calcícolas (6170), lastonares de *Brachypodium pinnatum* y otros pastos mesófilos (lugares con orquídeas notables, 6210*, hábitat prioritario) y praderas montanas de diente (6230*, hábitat prioritario).

Es bien conocida la estrecha relación interactiva entre estructura de las comunidades vegetales y herbívoros. Para visualizar la importancia de dicha interacción, basta decir que buena parte de la diversidad de pastos de montañas se ha originado probablemente como consecuencia del pastoralismo ancestral. Los hábitats pascícolas, además de constituir un recurso productivo, representan una importante riqueza ecológica y biológica en el contexto de Álava, ya que un importante elenco de flora y fauna, se asocia a estos ecosistemas pastorales. Como ya se ha dicho, el mantenimiento del buen estado de conservación de estos hábitats pasa por la correcta gestión de la actividad ganadera que hace uso de ellos.

Artículo 4.- La ganadería extensiva.

La ganadería extensiva en Álava es la siguiente:

- El ovino representa el 42 por ciento de las explotaciones y el 72 por ciento de los animales.

- El vacuno carne el 42 por ciento de las explotaciones y el 24 por ciento de animales.

- El caprino el 16 por ciento de las explotaciones y el 4 por ciento de los animales.

El peso de la ganadería extensiva en las zonas de campeo es muy importante, representando el 74 por ciento del total de las explotaciones de ganadería extensiva y el 63 por ciento de los animales.

La presencia del lobo ha obligado a los ganaderos a adoptar diversas estrategias sobre su ganado para disminuir los daños, dado que la depredación afecta sobre todo al ovino; es el manejo de esta especie la que se ha visto más modificada. Para disminuir el riesgo de ataques los rebaños pasan menos tiempo en los pastos de altura. Se ha estimado que la reducción media es de un 33 por ciento del tiempo. Cerrar el ganado todas las noches es otra de las estrategias utilizadas, lo que implica un menor aprovechamiento de los pastos debido a que el ganado no puede alejarse en exceso de los lugares de pernocta. La necesidad de protección ha originado la incorporación de mastines a los rebaños además de una mayor dedicación del pastor al acompañamiento del ganado. Se ha estimado que el tiempo dedicado a la vigilancia del ganado se ha multiplicado entre 2,5 y 3 respecto al que dedican cuando no hay riesgo de ataque del lobo, las horas de trabajo se incrementan notablemente además de endurecerse las condiciones de trabajo lo que conlleva a una merma de la calidad de vida del ganadero. Esta necesidad de dedicación choca con las expectativas de vida de las personas jóvenes dificultando el relevo generacional.

Si se analiza el impacto económico se observa que el incremento de costes de alimentación puede variar entre un 17 y un 19 por ciento en función de la reducción de la estancia del ganado en la sierra. Esto se traduce en una pérdida de renta que puede elevarse hasta un 43 por ciento.

Azpirarratu beharreko beste alderdietako bat manei u eredu intentsiboetara eta arraza aloktonoetara (arrazza autoktonoen kalterako) aldatzea izan da. Hori horrela, otsoa dagoen lekuetan murriztu egin da ardi latxaren kopurua eta esnetarako gaitasuna eta ekoizpen intentsiboa duten arraza ukuluratuak gehiago izan dira.

Sektorean profesionalki lan egiten duten pertsonen etorkizuna mendiko larreen erabilera estentsiboarekin lotuta dago. Ustiapen profesionalak mendilerroetara lotuta daude, ekonomiari eta gizarteari dagokionez jarduera bideragarria izateko. Arabako ustiapen gehienetan jarraitutasun hori fisikoa da; praktikan, mendiko larreak ustiapenen luzapena dira. Integrazio hori dela eta, korta asko kokatzeko orduan, haraneko nahiz mendiko larreen erabilera hartzen da kontuan. Otsoaren erasoaren presioa dela eta erabilera horri uko egin behar izatea oso kolpe gogorra da ustiapen estentsiboentzat.

5. artikulua.- Arazoaren azterketa

Otsoaren eta abeltzaintzaren arteko eraginak sortutako egoera mendialdean garatzen da eta kontserbaziorako interesen arazo gisa defini daiteke.

Hori horrela, Arabako Lurralde Historikoan 78.223,2 hektarea daude aitortuta Natura 2000 Sarearen barruan. Horietatik ehuneko 88,7 Onura Publikoko Mendietan sartzen dira. Espazio natural horien zati handi bat araubide estentsiboan edo erdi estentsiboan garatutako abeltzaintza jarduera tradizionalarekin hertsiki lotuta dago, eta, ondorioz, neurri handi batean egungo kontserbazio egoera ahalbidetu du. Herri administrazio eskudunei dagokie kontserbazioa zaintzea. Betebehar horren jatorria Kontseiluaren 92/43/CEE Zuzentarauko I. eranskinean (Batasunaren Intereseko habitat natural motak; horiek kontserbatzeko beharrezkoa da Kontserbazio Zona Bereziak izendatzea) espazio horiei egindako katalogazioa da. Aipatutako Zuzentaraua habitat naturalak eta basa fauna eta flora kontserbatzeari buruzkoa da (Habitaten Zuzentaraua).

Bestalde, Duero ibaiaren iparraldeko otso iberiarraren populazio jarraituak, adituen arabera, pasadan mendeko 70eko hamarkadatik zabalkuntza jarraitua eta progresiboa izan du eta horri esker lortu du egungo kontserbazio egoera. Horrenbestez, ez du mehatxu nabarmenik. Zabalkuntza honetan, otso iberiarra Arabako Lurralde Historikoaren mendebaldean finkatzen saiatzen ari da mende horretarako 80ko hamarkadatik eta, beraz, abeltzaintza estentsiboarekin arazoak sortu dira.

Ondorioz, otsoaren eta abeltzaintzaren arteko eraginaren egoera honela defini daiteke Arabako mendebaldean: otso iberiarraren banaketa eremuko ipar ekialdeko muga, Duero ibaiaren iparraldean. Era berean, lurraldeko eremu honetako gizarte eta ekonomiako jarduera multzoak daukan zereginak, abeltzaintza tradizionala barne, otsoak bere zabalkuntzan aurkitu duen hesi efektua sortzen du.

Asaldura horiek hertsiki ekonomikoak direnak (abereak galtzea edo ekoizpen kostuak areagotzea) baino haratago doaz, eta, sarritan, ustiapenetako buru kopurua murrizten dute (kasurik larrienetan jarduera bertan behera uzten da), abereen maneiua aldatzen dute (ustiapenetatik urrunen dauden mendi larreak gutxi erabiltzea), ekoizpen ereduak aldatzen dute beraz areagotzeko, abere arrazak ordezkatzeko, abeltzaintza ustiapenetako titularren bizi kalitatea murrizten dute, titular horiek belaunaldiz belaunaldi txandakatzeko zailtasunak sortzen dituzte... Arazo hori munduko ia leku guztietan ikus daiteke, baldin eta otsoak eta abeltzaintza estentsiboa badaude. Espeziea hamarkada batzutan egon ez den lekuetan berriz azaltzen denean handiagoa izaten da arazoa.

2000-2009 aldian zehar, Araban urtean batz bestea 80 harra-paketa baino gehiago egin dira ganaduan (gutxienez 52 eta gehienez 105) eta urtean batz bestea 300 bururi eragin die, abelburu hilak, zaurituak eta desagertuak barne (140-441 tartea). Eragin handiena artaldeetan izan da (erasoen ehuneko 80 baino gehiago eta ukitutako animalien ehuneko 90 baino gehiago). Ardiaren atzetik zaldiak, behiak eta ahuntzak egon dira, eta erasoaren ehuneko 5 eta ukitutako animalien ehuneko 1,5etik 4ra osatu dute.

Otro de los aspectos a destacar es el cambio hacia modelos de manejo intensivos y hacia razas autóctonas en detrimento de las razas autóctonas, así por ejemplo, en las zonas con presencia del lobo se produce un descenso de la raza latxa dejando mayor espacio a razas estabuladas de aptitud láctea y producción intensiva.

El futuro de las personas dedicadas profesionalmente al sector está vinculado al uso extensivo de los pastos de montaña. Las explotaciones profesionales están ligadas a las sierras que les dan la posibilidad de hacer viable económica y socialmente la actividad. En la mayoría de las explotaciones alavesas esa continuidad es física; en la práctica, los pastos de montaña son una prolongación de las explotaciones. Hasta tal punto llega esa integración, que muchos establos se ubican pensando tanto en el uso de los pastos de valle como en los de montaña. Renunciar a este uso por la presión que suponen los ataques de lobo es un durísimo golpe para las explotaciones extensivas.

Artículo 5.- Análisis de la conflictividad

La situación generada por la interacción del lobo y la ganadería que se desarrolla en áreas de montaña se puede definir como un conflicto de intereses de conservación.

Así, el Territorio Histórico de Álava tiene declaradas 78.223,2 has. dentro de la Red Natura 2000, de las que el 88,7 por ciento están situadas en Montes de Utilidad Pública. Buena parte de esos espacios naturales están estrechamente ligados a la actividad ganadera tradicional desarrollada en régimen extensivo o semiextensivo, lo que ha posibilitado en gran medida su estado actual de conservación. Corresponde a las administraciones públicas competentes velar por la conservación, obligación derivada por la catalogación de estos espacios en el Anexo I (Tipos de Hábitats Naturales de Interés Comunitario para cuya conservación es necesario designar Zonas Especiales de Conservación) de la Directiva 92/43/CEE del Consejo, relativa a la Conservación de los Hábitats Naturales y de la Fauna y Flora Silvestre (Directiva Hábitats).

Por otro lado, la población continua del lobo ibérico al norte del río Duero, a tenor de los especialistas, ha desarrollado desde los años 70 del pasado siglo una expansión continua y progresiva que le ha llevado a su estado actual de conservación, en el que no tiene amenazas notables. En esta expansión, el lobo ibérico desde mediados de los años 80 del mismo siglo está tratando de establecerse en el occidente del Territorio Histórico de Álava lo que provoca el conflicto con la ganadería extensiva.

Cabe definir, por lo tanto, la situación de la interacción entre lobo y ganadería en el occidente alavés como el límite nororiental del área de distribución del lobo ibérico al norte del río Duero. Del mismo modo, el papel desempeñado por el conjunto de las actividades socioeconómicas de esa zona del Territorio, incluida la ganadería tradicional, constituye el efecto barrera que se ha encontrado el lobo en su expansión.

Estas perturbaciones trascienden a las puramente económicas (pérdida de ganado o incremento de los costes de producción), implicando en muchas ocasiones una reducción del número de cabezas en las explotaciones (en los casos más graves el abandono de la actividad), cambios en el manejo del ganado (infrautilización de los pastos montanos más alejados a las explotaciones), transformaciones en el modelo de producción dirigidos hacia la intensificación, sustitución de razas ganaderas, disminución de la calidad de vida de los titulares de las explotaciones ganaderas, dificultad para el relevo generacional de esos titulares... Este conflicto, prácticamente generalizado en todas las áreas del mundo donde hay lobos y ganadería extensiva, es mayor en las zonas donde la especie vuelve a aparecer después de décadas de ausencia.

Durante el período 2000-2009, en Álava se han verificado una media de más de 80 predaciones al ganado/año (mínimo 52 y máximo 105), que afectan a un promedio de 300 cabezas/año, incluyendo reses muertas, heridas y desaparecidas (rango de 140 a 441). La mayor incidencia se da sobre el ganado ovino (más del 80 por ciento de los ataques y del 90 por ciento de los animales afectados), seguida por el equino, bovino y caprino, que apenas suponen poco más del 5 por ciento de los ataques y del 1,5 al 4 por ciento de animales afectados.

Harrapaketak ez dira modu parekatuan gertatu urte osoan zehar: eragina handiagoa da abuztu-azaroan, lauhileko horretan egon baitira azken bederatzita urteetako ezbeharren ehuneko 50 inguru. Bestalde, abenduaren eta martxoaren arteko lauhilekoan harrapaketen ehuneko 20 baino gutxiago egon da.

Datuok aztertzean kontuan hartu behar dira aurre hartzeko lanak, manei aldaketa (abeltzainek egindakoa), abereen presentzia (urtaroka) eta mendilerro batzuetan izan duten murrizketa.

Arabaren otsoek abereak harrapatzeko duten arriskua kalkulatzeko orduan, bi aldaera hauek aztertu dira: ganaduaren udal dentsitatea araubide estentsiboan eta otso taldeen banaketa potentziala. Emaizten arabera, lurraldeko ehuneko 14,3k harrapatzeko arrisku altua edo oso altua du. Otsoaren egungo banaketa eremuaren barruan, arrisku mailarik altuenak dituzten eremuak eskualde kantauriar-arabarra, Urkabustaiz udalerria eta Badaia mendilerroko larre herriak dira.

Otsoa Arabako ekialdeko eremura arte hedatzen bada, egun arazorik ez duten lekuetan piztuko da gatazka eta horrek ondorioak izango ditu.

Leku batzuetan, abeltzaintza estentsiboak interes nabarmena du habitata eta paisaiak kontserbatzeari dagokionez: Gorbeia eta Badaia, Urkiolako parke naturala, Elgea-Urkillak-Altzania, Entzia eta Izki.

Kontrolatzeko eta aurre hartzeko neurriek arazoa abeltzaintzarako eremu sentikor horietara hedatzea edo horren ondorioak murriztea saihestu beharko lukete.

6. artikulua.- Legezko egoera

Euskal Autonomia Erkidegoko Natura kontserbatzeari buruzko 16/1994 Legeko basa fauna babesteko esparru orokorrean sartzen da otsoa. Ez dago Arriskuan dauden Espezieen Katalogoan eta ez da ehiza espeziea.

1992ko maiatzaren 21eko Kontseiluko 92/43/CEE Zuzentarauko V. eranskinean sartzen da. Aipatutako zuzentaraua basa fauna eta flora eta habitat naturalak kontserbatzeari buruzkoa da ("Habitaten Zuzentaraua") eta kudeaketa neurriak jasan ditzaketan eta Batasunaren interesekoak diren espezieak jasotzen ditu, betiere, kontserbazio egoera onean mantentzearekin bateragarriak badira.

Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legean Arabako otsoa azaltzen da, VI. eranskinean (Batasunaren intereseko animalia eta landare espezieak). Otsoak naturatik hartu edo ustiatuz gero, kudeaketa neurriak jasan daitezke.

Bernako hitzarmenean, 1986ko maiatzaren 13ko berrespen tresnaren bidez, otsoa III. eranskinean sartzen da (Fauna babestuko espezieak).

Natura Kontserbatzeko Nazioarteko Batasunak (NKNB) "Ardura txikia - LC" kategorian sailkatzen du otsoa.

II. TITULUA

Xedea eta helburuak

7. artikulua.- Xedea.

Otsoaren Kudeaketa Plana, Arabako Lurralde Historikoan abeltzaintza estentsiboaren azaroari aurre egiteko izenekoaren xedea zenbait kudeaketa neurri arautzea da, honakoei dagokienez: naturatik espezieak hartzea, intereseko larretarako habitata eta, beraz, horiek mantentzen dituen abeltzaintza estentsiboa kontserbatzea, biak maneiatzea ekosistema desberdinetan eta otsoak besteekin bateragarriak izatea.

8. artikulua.- Garapen helburuak.

Kudeaketa Planaren helburua betetzeko, honako garapen helburuak planteatu dira:

a) Otsoaren aleak kontrolatzeko aplikatu beharreko prozedurak zehaztu eta arautzea, lurraldea egungo estatusen kontserbatze aldera.

b) Otsoaren aurkako legez kanpoko ekintzei eta heriotza ez naturaleko beste kausa batzuei aurre hartzea eta horiek jazartzea.

c) Ikerketa zientifikoa eta teknikoa garatzea, otsoaren biologiari eta ekologiari buruz.

Las predaciones no se distribuyen por igual a lo largo del año: la incidencia es superior durante el período agosto-noviembre, cuatrimestre que agrupa en torno al 50 por ciento de los siniestros de los últimos nueve años. Por el contrario, el cuatrimestre comprendido entre diciembre y marzo concentra menos del 20 por ciento de las predaciones.

Es necesario tener en cuenta al analizar estos datos, las labores preventivas y el cambio de manejo, desarrollado por los ganaderos y la presencia estacional del ganado, así como su disminución en determinadas sierras.

El riesgo de predación del lobo sobre la ganadería en Álava se ha estimado en función de dos variables: la densidad municipal de ganado en régimen extensivo y la distribución potencial de manadas de lobos. Los resultados han identificado un 14,3 por ciento del territorio con riesgo alto o muy alto de predación. Dentro del área de distribución actual del lobo, las zonas que cuentan con los niveles más altos de riesgo son la comarca cantábrico-alavesa, el municipio de Urkabustaiz y el comunero de la Sierra Brava de Badaia.

La expansión del lobo en Álava hacia su área oriental, supondría extender el conflicto a zonas en las cuales es inexistente en la actualidad, con sus correspondientes repercusiones.

En algunos lugares, la ganadería extensiva tiene un notable interés en la conservación de sus hábitats y paisajes: Gorbeia y Badaia, Parque Natural de Urkiola, Elgea-Urkillak-Altzania, Entzia e Izki.

Las medidas de control y prevención deberían de incidir en evitar que el conflicto se generalizara a estas áreas sensibles para la ganadería o se minimicen sus consecuencias.

Artículo 6: Estado legal

El lobo está amparado por el marco general de protección de la fauna silvestre de la Ley 16/1994, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco. No está incluido en el Catálogo de Especies Amenazadas ni es especie cinegética.

Está incluido en el anexo V de la Directiva 92/43/CEE del Consejo, de 21 de mayo de 1992, relativa a la conservación de los hábitats naturales y de la fauna y flora silvestres ("Directiva Hábitats"), que incluye aquellas especies de interés comunitario que pueden ser objeto de medidas de gestión siempre que sean compatibles con el mantenimiento de un estado de conservación favorable.

La Ley 42/2007, de Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, incluye al lobo en Álava en el Anexo VI, especies animales y vegetales de interés comunitario cuya recogida en la naturaleza y cuya explotación pueden ser objeto de medidas de gestión.

En el Convenio de Berna, a través de su instrumento de ratificación de 13 de mayo de 1986, el lobo se encuentra en el Anexo III (Especies de Fauna Protegida).

La UICN (Unión Internacional de Conservación de la Naturaleza) otorga al lobo la categoría de "Preocupación Menor - LC"

TÍTULO II

Finalidad y objetivos

Artículo 7.- Finalidad.

El Plan de Gestión del Lobo para afrontar el conflicto con la ganadería extensiva, en el Territorio Histórico de Álava tiene como finalidad la articulación de medidas de gestión para la recogida en la naturaleza de la especie, la conservación de los hábitats pascícolas de interés y por tanto de la ganadería extensiva que los mantiene, el manejo de ambos en los diferentes ecosistemas y la compatibilización entre su existencia.

Artículo 8.- Objetivos de desarrollo.

